EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Ingurunerako aurreikuspenak

Gaur egun, azaleratzen ari diren eta garapen bidean dauden ekonomiek herrialde aurreratuenen aurkako bilakaera erakusten dute. Hain zuzen ere, lehenengoek hazkunde bizia, inflazio kontrolatua eta egoera oneko kontu ekonomikoak dituzte. Bigarrenek, ordea, gehikuntza tasa ahulak, langabezia tasa altuak eta defizit publiko handiak dituzte. Koiuntura honetan, kezka berriak agertu dira, hala nola petrolioaren salneurriak etorkizunean izango duen bilakaera eta tentsio geopolitikoen eragina merkatu globaletan. Baina epe laburrean, kezka nagusia Europan dagoen zorraren krisia da, munduko ekonomiaren hazkundea mehatxatzen duena. Eurogunean ezarri diren politiken etengabeko porrotak atzeraldia sor dezake munduan eta depresioa eremu horretako Europako herrialdeetan.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2011	2012	2013	2011	2012	2013
Munduko ekonomia	2,9	2,6	3,2	3,7	3,0	2,9
AEB	1,7	2,3	2,6	3,1	2,3	2,0
Kanada	2,5	2,1	2,3	2,9	2,0	1,9
Japonia	-0,7	1,9	1,5	-0,3	-0,2	0,0
Eurogunea	1,5	-0,4	0,9	2,7	2,2	1,7
Europar Batasuna	1,6	-0,1	1,1	2,9	2,2	1,9
Alemania	3,0	0,6	1,5	2,3	1,9	1,8
Espainia	0,7	-1,4	0,1	3,2	1,8	1,7
Frantzia	1,7	0,2	0,9	2,1	2,0	1,8
Herbehereak	1,3	-0,7	1,2	2,3	2,0	1,9
Italia	0,5	-1,6	0,1	2,8	2,7	2,3
Erresuma Batua	0,8	0,6	1,8	4,5	2,7	2,1
Asia eta Ozeano Barea	4,4	4,9	5,1	3,5	2,5	2,7
Ekialdeko Europa	4,7	2,5	3,6	6,3	6,4	5,3
Amerika Latinoa	4,2	3,6	4,0	6,9	6,3	6,3

Iturria: Consensus Forecast (2012ko martxoa).

AEBetarako, aurreikuspen berrienek %2,0aren inguruko hazkundea iragartzen dute barne produktu gordinerako, hots, 2011koa baino zertxobait handiagoa. 2013. urterako, berriz, %2,5era arteko bizkortzea aurreratzen du aurreikuspena. Edozein modutan, Eurogunerako espero den atzeraldiak kalte egingo dio estatubatuar ekonomiari. Beste aldetik, hauteskundeek eragina izango dute 2012ko jardueran. Erreserba Federalak moneta pizgarriei eutsiko die, baina ziurgabetasuna dago azaroko hauteskundeak arte herrialde horretan egongo den norabide fiskalaz

BPGren bilakaera eremuka
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: NDF. 2012ko urtarrileko aurreikuspenak.

Txina eta India izango dira munduko panorama ekonomikoan hazkunde tasa handienak lortuko dituzten herrialdeak. Orobat, azaleratzen ari diren eta garapen bidean dauden ekonomiek gehikuntza biziak lortuko dituzte. Ekonomia horiek munduko ekonomiaren hazkundea sustatu dute nagusiki azken bost urtean. 2012. urtean, herrialde horiek hazkunde tasa apala jasoko dute, aurreko urteetakoa baino zertxobait txikiagoa, eta beraien helburua barne eskaria bultzatzea izango da, kanpo eskariaren jaitsiera, batez ere Europatik datorrena, konpentsatzeko. Halaber, Asiako kreditu baldintzak estutu ziren Europako finantza egoerak izan zuen narriaduraren ondorioz. Hala eta guztiz ere, Consensus Forecast erakundeak %4,9ko gehikuntza aurreikusten du 2012rako eta %5,1, berriz, 2013rako, Ozeano Bareko herrialde asiarrentzat.

Txinari dagokionez, moteltzeko joera espero da 2012an eta 2013an. Apaltze hori ekarriko duten faktore nagusiak, alde batetik, ekonomiaren gehiegizko berotzea saihesteko eta higiezinen burbuila ekiditeko herrialdean ezarri ziren politikak eta, beste aldetik, kanpoko gertakariak dira. Moneta politika diseinatzeko ardura dutenek hiru helburu nagusien arteko oreka aurkitu beharko dute: ekonomiaren hazkundea, inflazioaren kontrola eta gizartearen egonkortasunari eustea. Orobat, inbertsioan eta esportazioetan oinarrituta dagoen gaur eguneko eredutik aldentzea ahalbidetuko duen doikuntza egin beharko du, barne kontsumoan oinarritzen den hazkunderantz joateko.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Japoniarako dauden hazkunde aurreikuspenak onak dira 2012. urterako eta, bereziki, berreraikitzearen jarraipenean oinarritzen dira, gobernuaren gastua eta inbertsioa igotzeko pizgarria baita. Beraz, Consensus Forecastek %1,8ra igo du Japoniako gehikuntza tasa 2012. urterako eta %1,4an kokatu du 2013koa. Mugak daude hori baino gehiago hazteko. Eskaintzaren aldetik, argindarraren falta eta lantegietan oraindik dauden kalteek eragina izango dute ekoizpenean eta horniketa kateetan. Eskariari dagokionez, mugak kanpo arlotik iritsiko dira, Txinako kanpo eskaria gutxiago haziko delako eta Europako ekonomia atzeraldian murgilduta egongo delako. Japoniako barne eskariak ezin izango du konpentsatu kanpo eskariaren ekarpen txikiagoa, soldata errealak jaitsi direlako eta ekonomia horretan oraindik deflazioa dagoelako.

Txinarekin batera Indiak gidatuko du munduko hazkundea 2012. urtean. Epe laburrean, Indiak oztopo batzuei aurre egin beharko die hazkunde sendo bat lortzeko, hala nola inflazio altuari eta arazo fiskalei. Herrialde horretarako beste erronka bat aurrekontuaren defizitarena da, errupiaren balio galerarekin batera. Hala ere, NDFk %7,0aren inguruko hazkundea aurreikusi du 2012-2013 epealdi osorako.

Modu esanguratsuan nabarmentzen ari den ekonomia bat Brasil da. Herrialde horretako moneta politika hedakorra eta kapitalean eginiko inbertsioa dira ekonomia horren etorkizuneko hazkundearen oinarriak. Horiek horrela, NDFk estimatu du hazkundea %3,0an eta %4,0an kokatuko dela, hurrenez hurren, 2012an eta 2013an.

Badirudi Eurogunea atzeraldi arin batean sartuko dela 2012. urtean, herrialde batzuetako zor subiranoaren krisiarengatik eta hersturako neurriek BPGren hazkundean izango duten eraginengatik. 2012. urtean zehar, hazkunde tasa %-0,3aren eta %-0,5aren artean egongo dela aurreikusten da. Hala ere, Europako ekonomiak 2013an urratsez urrats suspertuko direla estimatu da, baina hazkunde tasak ahulak izango dira eta aldakuntza tasa hutsalak erakutsiko dituzte. Hain zuzen ere, 2013rako estimazioak %0,8aren inguruan daude. Zorraren krisiak merkatuetan eragin duen konfiantza narriadura bizia oztopo garrantzitsua da ekonomia bultzatuko duen ingurune bat sortzeko.

Espainiari dagokionez, konpromisoa hartu du defizit helburu batzuk lortzeko eta ahalegin handia egin beharko du eremu fiskalean horiek lortzeko. Horrek kalte egingo dio ekonomiaren hazkundeari 2012an eta 2013an. 2012an BPGa %1,5aren inguruan jaitsiko dela espero da, gero susperraldi arin bati ekiteko eta 2013an %0,0tik hurbil egongo den tasa batean kokatzeko. Analisigileen artean, iritziak oso ezberdinak dira. Izan ere, Cepredek Espainiako ekonomiarentzat %-0,8ko hazkundea iragarri du 2012. urtean, hurrengo urtean lau hamarren bakarrik hobetzeko eta %-0,4an kokatzeko. Funcaseko panelean, berriz, %-1,3 eta %0,2 dira

urte arteko tasan estimatu diren hazkundeak 2012rako eta 2013rako, hurrenez hurren. NDF ezkorragoa da eta hazkundea %-1,7ra eraman du 2012an eta %-0,3ra hurrengo urtean.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2012ko otsaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inbert. ekipoan eta bestean	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
AFI	-1,3	0,2	-1,6	-0,1	-6,7	-4,9	-6,4	-0,8	-7,9	-1,9	-3,4	1,6
BBVA	-1,3	0,6	-2,0	-0,9	-3,1	-1,8	-6,3	-1,9	-7,3	-4,0	-5,2	1,9
Bankia	-1,6	0,0	-2,5	-0,5	-5,3	-2,3	-7,2	-1,2	-8,8	-2,1	-4,2	0,3
Catalunyacaixa	-1,0	---	-1,0	---	-5,3	---	-7,1	---	-9,2	---	-5,2	---
Cemex	-2,1	0,0	-1,9	-0,5	-4,6	-3,0	-12,0	-3,9	-14,0	-6,0	-10,0	-2,0
CEEM-URJC	-1,0	---	-1,0	---	-5,9	---	-6,0	---	-7,2	---	-3,9	---
CEPREDE-UAM	0,0	---	0,1	---	-3,5	---	-2,4	---	-3,7	---	-0,1	---
CEOE	-1,6	0,7	-1,2	-0,4	-7,0	-4,2	-7,6	-2,1	-9,2	-3,4	-4,8	0,5
FUNCAS	-1,7	0,2	-1,9	-0,4	-4,1	-2,4	-7,5	-2,3	-8,6	-3,4	-5,8	-0,6
ICAE-UCM	-0,3	---	-0,2	---	-4,5	---	-4,8	---	-8,0	---	-1,0	---
IEE	-1,5	---	-1,5	---	-4,0	---	-6,6	---	-8,5	---	-4,5	---
IFL-UC3M	-0,8	0,1	-1,5	-0,8	-6,2	-3,1	-7,6	-3,6	-10,4	-5,5	-2,5	-0,6
Intermoney	-2,1	---	-2,5	---	-4,6	---	-12,4	---	-13,9	---	-10,8	---
La Caixa	-1,0	0,6	-0,9	0,2	-5,5	-3,8	-7,2	-0,4	-8,3	-2,7	-4,7	4,8
Repsol	-1,6	-0,1	-1,9	0,4	-5,4	-3,1	-8,8	-3,4	-12,9	-7,8	-0,5	5,2
Santander	-1,3	0,2	-1,2	-0,5	-6,0	-4,5	-7,1	-2,5	-8,6	-4,2	-4,0	0,6
Solchaga Recio	-1,3	---	-1,1	---	-4,5	---	-8,5	---	-9,2	---	-1,5	---
Batez bestea	**-1,3**	**0,2**	**-1,4**	**-0,4**	**-5,1**	**-3,3**	**-7,4**	**-2,2**	**-9,1**	**-4,1**	**-4,2**	**1,2**
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2011-04)	2,3	2,4	1,4	1,6	-0,8	-0,6	2,7	3,7	0,7	1,7	---	---
Esp. Bankua (2012-01)	-1,5	0,2	-1,2	-0,5	-6,3	-3,3	-9,2	-2,2	-10,6	-3,1	-7,0	-0,9
E. Batzord. (2012-02)	-1,0	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
NDF (2012-01)	-1,7	-0,3	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2011-11)	0,3	1,3	-0,1	0,9	-2,0	-1,3	-4,0	0,7	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2012ko otsaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
AFI	-3,7	-1,2	3,6	6,0	-4,1	1,8	1,7	2,0	-3,4	-0,7	24,3	24,6
BBVA	-3,2	-1,3	1,6	8,2	-4,8	2,1	1,2	1,1	-3,8	-1,9	24,4	24,6
Bankia	-4,1	-1,0	1,5	3,2	-6,6	0,0	1,6	1,9	-3,3	-1,5	24,4	25,5
Catalunyacaixa	-3,0	---	3,6	---	-2,8	---	1,7	---	-2,9	---	23,7	---
Cemex	-4,7	-1,7	1,8	5,7	-5,5	1,0	1,3	1,5	-3,0	-1,0	23,3	23,3
CEEM-URJC	-3,1	---	4,8	---	-2,3	---	1,6	---	-1,9	---	23,0	---
CEPREDE-UAM	-0,8	---	3,5	---	-0,2	---	2,1	---	-0,1	---	23,5	---
CEOE	-3,6	-1,4	3,4	6,9	-4,0	-0,2	1,7	1,3	-3,0	-0,5	23,8	23,9
FUNCAS	-3,7	-1,3	2,4	5,7	-4,2	0,8	1,6	1,5	-3,4	-0,8	24,2	24,5
ICAE-UCM	-2,1	---	3,3	---	-2,8	---	1,6	---	-0,6	---	21,7	---
IEE	-3,2	---	3,0	---	-3,0	---	1,5	---	-2,5	---	23,7	---
IFL-UC3M	---	---	5,3	6,1	-4,1	0,1	1,8	1,5	---	---	23,9	24,9
Intermoney	-5,1	---	-1,5	---	-11,0	---	0,9	---	-3,8	---	24,0	---
La Caixa	-3,2	-0,7	1,5	5,3	-5,9	1,2	1,4	1,7	-3,6	-1,1	24,1	24,3
Repsol	-4,2	-1,1	5,4	9,7	-2,9	7,3	1,6	1,6	-2,5	-2,0	23,5	24,0
Santander	-3,5	-1,7	4,3	6,8	-3,0	0,9	1,8	1,4	-2,0	-0,5	23,1	22,9
Solchaga Recio	-6,0	---	4,5	---	-3,8	---	2,0	---	-2,8	---	23,5	---
Batez bestea	**-3,6**	**-1,3**	**3,1**	**6,4**	**-4,2**	**1,5**	**1,6**	**1,5**	**-2,7**	**-1,1**	**23,7**	**24,2**
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2011-04)	1,3	1,7	7,9	7,2	4,1	4,7	1,9	1,9	1,4	1,5	18,5	17,3
Esp. Bankua (2012-01)	---	---	3,5	5,9	-4,8	1,2	1,5	1,2	-3,0	-0,7	23,4	23,3
E. Batzord. (2012-02)	---	---	---	---	---	---	1,3	---	---	---	---	---
NDF (2012-01)	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2011-11)	-1,3	0,4	3,6	5,6	-1,7	3,0	1,4	0,9	---	---	22,9	22,7

Iturria: Funcas.

Oro har, igurikimenek BPGaren beherakada garrantzitsua iragartzen dute 2012ko lehen erdian eta urteko bigarren erdian hasiko dira ikusten hobekuntza zantzuak, 2013. urtean zehar zerotik hurbil kokatuko direnak. Kontsumo pribatuak ahultasuneko zantzu biziak erakutsiko ditu,

langabezia tasa altuen ondorioz. Administrazio publikoetako gastua hondoratuko da defizit publikoa gutxitzeko egitasmoaren helburua bete ahal izateko. Inbertsioa ere txikiagoa izango da, ingurunea hoberantz noiz egingo duen eta finantzazioa lortzeko malgutasun handiagoa noiz gauzatuko den esperoan. Barne eskariaren ahultasuneko testuinguru horretan, inportazioak ere gutxituko dira eta esportazioek konpentsatuko dute, baina neurri batean bakarrik, narriadura orokorra.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2012ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012.I	2012.II	2012.III	2012.IV	**2012**	**2013**
BPG	-0,2	-0,9	-1,2	-1,1	**-0,8**	**-0,4**
Kontsumo pribatua	-1,1	-1,8	-2,0	-1,0	**-1,5**	**0,0**
Kontsumo publikoa	-6,5	-7,5	-8,3	-10,0	**-8,1**	**-8,1**
Kap. finkoaren eraketa gordina	-9,4	-10,8	-12,1	-9,6	**-10,5**	**-4,8**
- Inbertsioa ekipamenduan	1,2	0,4	0,1	1,2	**0,7**	**2,3**
- Inbertsioa landutako aktiboetan	-6,0	-6,3	-7,9	1,0	**-4,9**	**2,0**
- Inbertsioa eraikuntzan	-10,7	-12,3	-12,5	-10,0	**-11,4**	**-5,4**
Barne eskaria	-4,2	-5,0	-5,5	-4,6	**-4,8**	**-2,6**
Esportazioak	3,6	2,8	2,4	2,5	**2,8**	**4,8**
Inportazioak	-9,2	-10,3	-10,9	-8,5	**-9,7**	**-1,0**

Iturria: CEPREDE.

Jarduera adarrei dagokienez, 2012. urtean industriak portaera hobea izango duela aurreikusten da eta eraikuntzak eta zerbitzuek nozituko dute sakontasun handiagoz jardueraren beherakada. Ekonomia jardueraren narriadurak lanpostu garbien galera ekarriko du berriro. Funcasek %2,7an kokatu du galera hori 2012rako eta %1,1ean, berriz, 2013rako. Beherakada horrek adierazten du 460.000 lanpostu galduko direla 2012an eta beste 180.000 hurrengo urtean. Langabezia tasari dagokionez, 2012an %23,7ra igoko dela eta 2013an, berriz, %24,2ra kalkulatu da.

EAErako aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoan zehazten diren aurreikuspenak 2012rako eta 2013ko lehen seihilekorako